Mundubat

20 años de solidaridad urte elkartasunean
1988 - 2008

1

Giza Eskubideak Mundubat-entzat

Aurkibidea

03 Sarrera: Giza Eskubideak Mundubat-entzat

04 Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua

08 Giza eskubideen gezur handia, alteritaterik eta alternatibarik ez dagoenean

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO
Emakume eta Garapenerako Lankidetzako Zerbitzua
Servicio de Mujer y Cooperación al Desarrollo

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alava.net

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Giza eskubideak Mundubat-entzat

Giza eskubideak (GGEE) Mundubat-entzat. Horrela, kontzeptu hori jartzen dugu tentsioan eta, horren ondorioz, gure jarduna bera ere, epe luzeari begira, hau da, prozesu zein metaketen ikuspegiaz, nahiz egunez egunekoari begira, jarduketa instituzionaletan zein euren dimentsioetan (tokian-tokian, landa-lana, nazioartea, eragingarritasuna, sentsibilizazioa, lankidetza, sareetako partaidetza, laguntasuna, dokumentazioa, jarrerak).

Horretarako, GGEEak oinarrian bertan daude: sorrera-printzipioan bertan eta erakundearen zein proiekzioaren gunean bertan. Euren alegatua edo argudioa, gainera, koherentzia-kontua da. Bilbean bertan, barne-dinamikan, kanporanzko harreman eta lanetan, hau da, sorreraren arrazoien balioztapenean. Hori dela-eta, etengabe egokitu eta jardun behar dugu barrurantz, eta genero zein horizontaltasun konpromisoen inguruko asimilazioak kontuan hartu eta ezarri egin behar ditugu, bai eta modu berean ere, urraketa sistematikoko errealitateak, herrialdeak edo jorratzen ditugun gaiak erkatzeko orduan.

Oro har, zeharkako tresna giltzarria dira eta, aldi berean, egin beharreko galdera ere bai, hau da, ohiko itxieren aurrean eta GGEE-en inguruko azken egia omen daukaten botere-eragileen aurrean berrireki egin behar den gaia. Azken egia hori, gainera, status quotik ezarritako eskema formalei eutsita inposatzen digute. Beraz, guretzat ere, funtsean, botere transferentziak edo eraketak lortzeko borroka-eremuen aldeko prozesuak izan behar dira GGEEak, aukera politiko eta etikoen kontzepzioak eta esparruak ezartzeko orduan eta guztion mesederako bizitza, ongizatea, duintasuna nahiz mundu hobea bilatzeko orduan.

Munduan, merkantilizazioa eta, era berean, merkantilizazio ideologikoa nagusi den bitartean, GGEE-en diskurtsoa, iluntasunak, kontraesanak edo hutsuneak dituen arren, premiazko gida da oraindik, herrien borrokarekiko elkartasun sortzailea bezain erradikala eta lankidetza aparta sustatzeko, betiere GGEEak herrien borroken arabera egituratzen badira. Horra hor GGEE-en arloko beste eragile batzuen egikerarekin eta helburuekin ditugun aldeak: sorospenerako GKE, bankako organismoak, zentro kontserbadoreak edo gobernu zein transnazional gehienak. Beste era batera lan egiten dugu, guretzat ere GGEEak betetzea ezinbestekoa den arren, bitartekotzat hartzen ditugulako eraldaketa-prozesuei ekiten dieten subjektu zein mugimenduen bilbe sozial eta politikoetan. Beraz, testuinguruan jarrita daudenez, desberdintasunen eta zapalkuntzen aurka jardun behar dugu bete-betean.

Hori dela-eta, GGEE-en ikuspegi kritikoak eta ohiko ikuspegiak ezarri behar ditugu koherentziaz, lehenengoak bigarrenak baino gehiago, lankidetzari, garapenerako hezkuntzari eta gizarte-mugimenduen ezaugarri nahiz zereginei buruz hausnartzeko orduan. Ikuspegi alternatiboetan oinarrituta, zentzuz egiten badugu, urraketak ez ezik, gaur egun nagusi diren ereduetan GGEE-en etengabeko urraketei aurre egiteko erresistentziak ere jarri behar ditugu agerian, hau da, hausturak nabarmendu behar ditugu merkatu kapitalistako atzerakaden eta estrategia ekonomikoen aurrean, bertako indarkerien eta zigorgabetasun-egituren aurrean, zapalkuntza orokorraren aurkako borroken zilegitasunaren alde eta, batez ere, herrien zein lurraldeen okupazioaren eta zapalkuntzaren aurrean.

Horren guztiaren ondorioz, Mundubat-ek Palestina eta Sahararekiko elkartasunari eusten dio. Era berean, Kolonbian zein Chiapasen, salaketa nahiz proposamenerako zereginak garatzen ditu, herriek bidegabekeria ankerrak pairatzen dituztelako harrapaketa, kriminalizazio eta izuaren logikak abian jarri eta sendotzen dituzten gatazka armatuen testuinguruetan. Beraz, besteak beste, entzuteko eta kabildeoa lortzeko baldintzak ezarri behar dira iparraldean, hegoaldean egoerei aurre egiten dietenen ahotsak eta jardunak gure ekintzak bideratu ditzaten.

Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua

Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua (IDHPA) irabazi-asmorik gabeko erakundea da, Deustuko Unibertsitatekoa da eta giza eskubideei buruzko hausnarketa kritikoa eskaintzea du helburu. Hona arlo hauetan lan egiten du IDHPAk: giza eskubideak; nazioarteko laguntza humanitarioa; garapenerako eskubidea; migrazioak, atzerritarrak eta errefuxiatuak; nortasun kulturala, gutxiengodunak eta herri indigenen eskubidea; bakea eta gatazken konponbidea; eta generoa. Hona hemen institutuak gaiok jorratzeko orduan dituen printzipio estrategikoak: kezka etikoa, diziplina artekotasuna, ikuspegi praktikoa, integrazio soziala eta nazioarteko bihurtzeko prozesua. Gainera, printzipio horiek lau jarduketa-programaren inguruan egituratzen dira: ikerketa, irakaskuntza, zabalkunde-sentsibilizazioa eta ekintza-jarduketa.

Ikerketa-programaren bidez, IDHPAk giza eskubideen azterketa eta ezagutza hedatu nahi ditu bi lerroren bidez: giza eskubideak eta aniztasun kulturala. Horretarako, kultura anitzeko errealitate berriak eta euren inguruko gatazkak aztertzen ditu. Horrez gain, migrazio-prozesuetako giza eskubideak eta gutxiengodunen zein herri indigenen onespena eta babesa ere baditu aztergai. Bestetik, giza eskubideak eta ekintza humanitarioa ere baditugu, eta, bertan, ekintza humanitarioak giza eskubideen ikuspegitik dituen inplikazioak eta ondorioak aztertzen dira. Institutua doktore-titulurako hautagaiak atxikitzeko zentroa ere bada, betiere doktoretza-tesiak giza eskubideekin zerikusia duten gaietan egin nahi badituzte.

Irakaskuntza-programak pertsona kritikoak eta trebeak prestatu nahi ditu giza eskubideen arloan. Horretarako, honako master hauek antolatzen ditu: Nazioarteko Ekintza Humanitarioaren Masterra (NOHA), Giza Eskubide eta Demokratizazioaren Master Europarra eta Herri Indigenen eta Giza Eskubideen Masterra. Horrez gain, IDHPAko zenbait kidek ikastaroak ematen dituzte Gizarte Globaleko Migrazio eta Gatazken Doktoretzan. Era berean, institutuaren eta Deustuko Unibertsitatearen arteko loturari esker, zenbait ikasketatan sartutako giza eskubideen ikastaroak ere ematen dituzte.

Bere ikerlanak zabaltzean, sentsibilizazio-programa sortzen du, giza eskubideen inguruko alderdi politiko edo sozialei buruz eztabaidatzeko eta bakearen kultura nahiz giza eskubideak sustatzeko. Horretarako, institutuak dokumentazio-gela dauka, tokian-tokian zein nazioartean giza eskubideekin zerikusia duten beste dokumentazio-zentro batzuekin dago harremanetan eta zabalkunde-jarduerak antolatzen ditu (hitzaldiak, mintegiak eta topaketak), zenbait eragilek giza eskubideen arloan egindako lana gizarteratzeko eta/edo gizartea egoera edo gai zehatz baten inguruan sentsibilizatzeko. Era berean, zenbait argitalpen egiten ditu gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez, eta honako hauexekin batera lan egiten du: Forum Deusto (Deustuko Unibertsitatean giza eskubideekin zerikusia duten gaiei buruz antolatutako hitzaldi-zikloak) eta HumanitarianNet (garapen humanitariorako ikaskuntzak).

Azkenik, institutuak jarduketa-programa du, giza eskubideen defentsan bete-betean parte hartu ahal izateko. Horretarako, ekintza zuzenak antolatzen ditu edo bere zerbitzu teknikoak eskaintzen dizkie beste erakunde batzuei. Programa horren barruan, institutuak Ekintza Humanitarioari buruzko Harreman Taldea antolatzen du, arlo horretan diharduten gobernuz kanpoko erakundeetako aditu praktikoen artean ekintza humanitarioari buruzko informazioa trukatzeko. Era berean, honako jarduera hauek ere nabarmendu behar dira: Rigoberta Menchú Fundazioarentzat egindako txostena, Entzutegi Nazionalean Guatemalako genozidioagatik aurkeztutako demanda babesteko; AIETIk (Gai Iberoamerikarrei buruzko Ikerketa eta Espezializaziorako Elkarteak) antolatutako Kolonbiako Giza Eskubideen Defendatzaileen Aldi Baterako Harrera Programan parte hartzeko proposamena; Kolonbiako Hegoaldeko Bolivarko Iritzi Auzitegirako aholkularitza teknikoa eta juridikoa; eta Kolonbiako Sierra Nevada de Santa Martako giza eskubideen jarraipenerako programa, Alboan erakundearen laguntzaz.

Institutuaren kanpo-harremanei dagokienez, irakaskuntza-programa garatzeko orduan, institutua nazioarteko laguntza humanitarioan adituak diren nazioarteko erakundeekin dago harremanetan: Europar Batasuneko Gai Humanitarioetarako Bulegoa (ECHO) eta Errefuxiatuentzako (ACNUR) zein Giza

Eskubideetarako (OACDH) Nazio Batuen Goi Komisarioak. Euskal eremuaren barruan, institutuak bi lankidetza-hitzarmen ditu instituzio publiko eskudunekin. Gobernuz kanpoko erakundeei dagokienez, institutuak lankidetza-hitzarmenak ditu euretako batzuekin, Nazioarteko Ekintza Humanitarioaren Masterreko praktikak garatzeko eta beste jarduera batzuk elkarrekin egiteko.

Felipe Gómez Isari egindako elkarrizketa. Izan ere, Deustuko Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakaslea eta Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuko ikertzailea da. Bertan, hain zuzen ere European Master in Human Rights and Democratisation masterreko zuzendaria da.

Nola sortu zen Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua (IDHPA)?

Institutua 1994. urtean sortu zen, Jaime Oráren ekimenpean. Garai hartan, Nazioarteko Zuzenbideko irakaslea zen, eta Ekintza Humanitarioaren Masterrean parte hartzeko eskatu zigun. Izan ere, urte horretan bertan sortu zen, eta, harrezkero, giza eskubideetan, ekintza humanitarioan zein garapenean interesa zuen jende-taldea eratu zen. Talde horrek proposamena egin zion unibertsitateari, eta, azkenean, 1997an, institutua sortu zen modu formalean, 1994-1995etik lanean bageunden ere. Unibertsitatearen ekimena zen, eta zenbait arlotako irakasleak elkartzen zituen Ekintza Humanitarioaren Masterraren inguruan: zuzenbidea, filosofia eta ekonomia.

Giza eskubideen zer kontzeptu sustatzen duzue institutuan? Hau da, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekin bat zatozten edo kritikatu egiten duzuen.

Kontzeptu zabala da, giza eskubideen kontzeptu integrala, eta, funtsean, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean oinarritzen da, baina ez bertan bakarrik, agiriak 60 urte dituelako eta osteko zenbait garapen Adierazpen Unibertsalean kontuan hartu ez direlako. Alde horretatik, giza eskubide guztien banaezintasunaren kontzeptuaren alde gaudenez, eskubide zibil, politiko, ekonomiko eta sozialak ez ezik, hirugarren belaunaldiko eskubideak ere hartzen ditugu kontuan. Horixe dago giza eskubideen inguruan dugun kontzepzioaren azpian.

Orduan, giza eskubideen hiru belaunaldiak lantzen dituzue edo euretako bati ematen diozue lehentasuna?

Historia eta gure jardueren berezitasunak kontuan hartuta, batez ere, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak lantzen ditugu; ondoren, globalizazioa; eta gero, hirugarren belaunaldiko eskubideak. Garapena eta Ekintza Humanitarioaren Masterra ere sartuko lirateke esparru horretan. Eskubide zibilak eta politikoak ere jorratzen ditugu, jakina, baina egia da bigarren eta hirugarren belaunaldikoen alde egin dugula gehienbat.

Emakumeen eskubide bereziak lantzen dituzuenez, giza eskubideen kontzeptu orokorrean genero-ikuspegia hartuko duzue kontuan, ezta?

Zeharkako ikuspegia da, berez ez dagoelako genero-sailik. Hori dela-eta, jarduera, argitalpen eta proiektu guztietan hartzen da kontuan ikuspegi hori.

Lehentasunezko zer lan-arlo dituzue institutuan?

Une honetan, hiru arlo handi daude ikerketan zein irakaskuntzan: batetik, ekintza humanitarioa, izen bereko masterraren inguruan; bestetik, aniztasuna, giza eskubideak eta kultura aniztasuna, bai eta gutxiengodunen eskubideak, hizkuntza-eskubideak zein herri indigenen eskubideak ere; eta ondoren, globalizazioa eta giza eskubideak, munduko gizarte-foroa, transnazionalak eta giza eskubideak, hau da, hirugarren belaunaldiko eskubideekin lotura handiagoa duten gaiak. Horra hor hiru lan-lerro handiak.

Nolako estrategiak erabiltzen dituzue, zuon lanari aurre egiteko?

Funtsezko estrategiak bi dira: batetik, nolako ekarpena egin daitekeen zehazteko oinarrizko estrategiatzat hartutako ikerketa dugu, gurea bezalako zentroak GKE-en munduan balio erantsidun inolako ekarpenik egiterik badu, hausnarketa zein ikerketarako eremu serio bezain sakona delako, hain zuzen ere. Bestetik, irakaskuntza dugu, eta beste elementu garrantzitsu bat da zenbait ikasketa zein ikasgaitan, bi masterretan eta eskubide indigenen programan. Gero, hegoaldean jarduketa edo ekintzaren arloko dimentsio zuzenagoa duten proiektuak daude. Hala ere, bertan, bi lan-lerro handi horiek hartzen dira kontuan: ikerketa eta irakaskuntza, hau da, zentzu horretan ez gara garapenerako GKE, ikasketen, adimenaren eta hausnarketaren arloan lan egiten dugulako gehiago. Hortxe dago errealitatea, lurzorua, baina beste ikuspegi bat da.

Beraz, ikerketa hori beste instituzio eta GKE batzuei zerbitzu teknikoak eskaintzeko erabiltzen duzue.

Horixe bera da asmoa, ikerketa hori argitalpen edo liburu hutsean ez geratzea eta beste errealitate batzuen zerbitzura jartzea. Horren ondorioz, hegoaldean "esku hartzeko" zenbait proiektu sortu dira: ikastaroak, mintegiak, hausnarketa-prozesuak, prestakuntza-prozesuak eta sistematizazio-prozesuak. Orain dela gutxi inplikatu gara bertan, baina batez ere, ekintza humanitarioaren eta herri indigenen arloan, gero eta eskari handiagoa jasotzen dugulako Bolivia, Salvador eta Mexikotik. Gaur egun, oso proiektu interesgarria dugu, Chiapaseko eta Kolonbiako Cucako bi erkidegoko indigenen mundu-ikuskerak giza eskubideen ikuspegitik aztertzeko eta mundu-ikuskera horiek giza eskubideen kultura anitzeko kontzeptu zabalarekin zer neurritan diren bateragarriak ikusteko. Oso proiektu interesgarria da eta bi urteko iraupena izango du.

Nolakoa da lankidetza beste GKE batzuekin?

Batez ere, GKE-ekiko lankidetza herri indigenen, giza eskubideen eta ekintza humanitarioaren hiru master edo diplomaturen inguruan garatzen da. Praktikak egiteko hitzarmenak daude, eta gero eta harreman zuzen handiagoak daude hegoaldeko erakundeekin, ikerketak, prestakuntza-mintegiak... egiteko. Orain, hitzarmena sinatuko dugu Brasilgo unibertsitate batekin, Brasilen bertan giza eskubide zein gatazken institutua sortzeko. Era berean, Simón Bolívar Unibertsitate Andetarrarekin ere lan egiten dugu indigenen eskubideen maisutzan. Lehen, indigenen eskubideei eta mundu-ikuskerari buruz aipatu dudan proiektua ere hiru unibertsitaterekin batera garatzen da, eta, aldi berean, hitzarmena dute ikerkuntzan parte hartuko duten indigenen erakundeekin. Beraz, zentzu horretan, nahikoa jarduera eta sare-lan dago, Munduko Gizarte Foroan parte hartu dugu...

IDHPAren lanaren garapenari dagokionez, zer lortu duzue, nola aldatu zarete sailei begira eta zer erronka dituzue etorkizunerako?

Hamabi urte igaro dira institutua sortu zenetik, eta, egia esan, nahikotxo bilakatu da bertan lan egiten dutenen eta bertan landutako proiektuen kopuruari dagokionez, bian helburuak berberak dira funtsean. Izan ere, plangintza estrategikorako prozesutik irten berri gara, eta ezustekoa handia izan da, hasierako helburuak berriro zehaztu direlako ia-ia, baina berberak direlako funtsean. Argi eta garbi dugu gure bokazioa unibertsitarioa, akademikoa dela, baina gizartearen eta elkartasunaren zerbitzura dagoela. Hala ere, gure asmoa ez da garapen-proiektuak egitea, hausnartzea eta hausnarketa hori gizartearen zerbitzura jartzea baizik.

Erronkei dagokienez, ikusi egin behar dugu kanpora ez ezik barrura, Euskadiko arazoetara ere begiratzeko gai den IDHPA. Zailagoa da, busti egin behar garelako, baina zentzu horretan ere egin dugu zerbait.

Erronka horik eta alterglobalizazioaren ikuspegia kontuan hartuta, zuon ustez, nolakoa izan daiteke beste era bateko mundu hori, zer lortu nahi duzue zuon lanari buruz?

Horixe bera da erronka, beste era bateko mundu bat sortzea, alegia. Bertan, hain zuzen ere, guztientzako giza eskubideak lortzea izan behar da helburua, hau da, gure iritziz giza eskubideek oso elementu interesgarria eskaini dezakete helburu horretan, azken batean jakin badakigulako garapenerako lana, bakearen aldeko lana eta ekintza humanitarioaren aldeko lana giza eskubideen aldeko lana dela. Hori dela-eta, eskubide zibil eta politikoekin bakarrik lotuta dauden giza eskubideen kontzeptu estuegi, mugatuegi hori zabaldu behar dugu, hots, giza eskubideak askoz gehiago dira eta giza eskubideek egiturazko txirotasunarekin eta transnazional globalek zein nazioarteko finantza-erakundeek garatutako dinamikekin dute zerikusia. Beraz, giza eskubideak zeharkakotu behar dira Merkataritza Zuzenbidean, Jabetza Intelektualaren Eskubidean eta giza eskubideekin loturarik ez omen duten gaiak lantzen dituzten arloetan, praktikan eragin handia dutelako bertan.

Ikuspegi horretatik, eredu neoliberala kritikatzen duzue?

Arlo horretan ere, hausnartu egiten dugu. Hain zuzen ere, politika egiteko modu berri moduan Munduko Gizarte Foroak egindako ekarpenari buruzko azterlan serioa argitaratu berri dugu, foro horrek politika egiteko ohiko moduak ez beste esparru batzuk eskaini ditzakeen jakiteko. Dena dela, berriro ere, hausnarketatik. Batzuetan, kalera irten beharko gara, salatu egin beharko da eta adierazpenak egin beharko dira. Hala ere, guk zenbait eredu eskaini behar dizkiegu GKE-ei eta prentsari, kritika demagogikorik egin ez dezaten eta behar beste datu eta argudio eduki ditzaten.

Amaitzeko, zer aurreikuspen dituzue etorkizunari begira?

Zaila da etorkizunaz hitz egitea, baina norabide horretatik jarraitu nahi genuke. Giza eskubideek gero eta agerpen handiagoa izan behar dute, eta hezkuntzan nahiz elkartasunean islatu behar dira, are gehiago, bigarren hezkuntzako programa berrietan herritartasunerako hezkuntza azaltzen dela kontuan hartuta. Alde horretatik, zertxobait egin dugu aurrera azken hamar urteotan. Unibertsitatean, behintzat, giza eskubideen gaia apurka-apurka sartu da zenbait ikasgai eta ikasketetan, eta institutuko lanean ere bai. Egia esan, oraindik badugu zer eginik, baina urrats handiak eman ditugu, giza eskubideen arloan nolako iritzia dugun zabaltzeko, gai horren inguruko sentsibilizazioa lortzeko eta giza eskubideen arloan nazioartean zer egiten den aztertzeko.

Giza eskubideen gezur handia, alteritaterik eta alternatibarik ez dagoenean

Ukapenaren aurka

2008an Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren hirurogei urteak ospatu ondoren, eskubide horien enuntziatuari eta holokausto berri zein euren ondorioei buruz hausnartu beharra dago. Izan ere, adierazpena, "behin betiko" ustezko konbergentzia teorikoa, bizikidetzarako "kontratu" edo hitzarmen moduan sortu zen Munduko Bigarren Gerratik hiru urte igaro ondoren, gerra izugarri horren ondorioak agerikoak zirenean.

Lehenengoa: ez gara errugabeak, inoiz izan baginen. Nolabaiteko mailan, erantzukizuna dugu kate hiltzaileetan eta luzaroan dirauten gatazketatik lortzen ditugun onuretan eta arrazoietan. Oso garaile gutxi daude; eta milioika garaitu. Ukatzea ukapena da.

Bigarrena: Lur planeta suntsitzen ari gara. Beraz, biziraun nahi badugu, talde-bizikidetzako goragoko eredura igaro behar gara, aukera bateratu bakarra delako naturaren hondamendiaren aurrean. Ukatzea ukapena da.

Ardatzetako bat ikusiko dugu, beraz, nagusia, zenbaiten esanetan: erronkak nolakoak diren kontuan hartuta, garai garrantzitsu berriari aurre egin behar diogu. Naturarekiko oreka lortu behar da, ingurumenaren gaineko suntsipena handiagoa izan ez dadin. Horretarako, badugu behar besteko erreferentzia eta daturik: 2009ko maiatzean, honako hauxe jakinarazi ziguten nazioarteko agentzia eta adituek eta, euren artean, Kofi Annan NBEko idazkari ohiak (Foro Humanitario Globalaren esparruan): **klima-aldaketak 300 mila lagunen heriotza sortzen du urtean, eta gehienak herrialde txiroenetan gertatzen dira, nahiz eta karbono dioxidoaren %1 bakarrik igortzen duten. Gainera, klima-aldaketaren ondorio zuzentzat hartutako heriotzen %90 zenbait arazo larriagotzean sortzen dira: nutrizio txarra, diarrea edo malaria. Gainerako %10a, ordea, gero eta ohikoagoak diren hondamendi naturalen ondorioa da, azken 25 urteotan %40 handitu direlako.**

Krisiari eta globalizazioari buruzko bertsioaren aurka

Arrazoi osoz guztion ahotan dagoen krisi globala ez da finantza-erorketatzat hartu behar eta ez da nagusi diren operadore eta bektore ekonomikoen ikuskera pribilegiatuetatik aztertu behar hasiera batean, biktimen ikuskeratik eta sistema ekonomiko zein politikoen segida eta gatazka historikoaren ikuspegitik baizik. Hartara, giza eskubideak ez dira emandako kontzeptutzat hartuko, eratzen ari den zerbait izango direlako. Zentzu horretan, herrientzat, txirotuentzat ez da lehen krisi handia, gaur egungo globalizazioa ere ez da lehenengoa izan eta bere ondorioak ez dira berriak.

Orain dela bost mende, ezagunak ez ziren mugak zeharkatuta, gaur egungo herri amerikarrak menderatzeko ekimena abian jarri zuten espedizio zaharrek eta euren ondorio militar, kultural eta ekonomikoek merkantilizazioan oinarritutako sistema mundura hedatzeko prozesuan izan zuten zeresana. Okupazio bortitzaren logika errealitatearen eta haren ahalmenen pixkanakako jabekuntza fisiko eta izpiritual, material eta ez-material moduan inposatu zen. Aurkikuntzak aurkikuntza, arrazionaltasunak eta garapen kapitalistak planetaren prospekzioa agindu zuten, eta bertako lekuak ezin izan ziren merkatuaren totalizazio moduan bizitako larderiazko bokazio horren aurka matxinatu.

Sistemaren barruan eta kanpoan, kontraesanak sortu ziren, eta beste proposamen edo ahots batzuek esplotazio-harremanak bermatzen dituzten legeak arautzeko eta aurka egiteko bideari ekin zioten. Erradikalak edo ez hain erradikalak ziren erresistentzia horietatik eta merkataritza zein arpilaketa ez beste esparru batzuk aldarrikatzeko beste legatu batzuetatik, beste ideia batzuk sortu ziren baldintza eta instituzio berrien alde. Geroago, gainera, eraketa ideologiko, politiko, kultural eta juridiko hauekin bateratu ziren: zuzenbide-estatua, ongizatearen estatua, giza eskubideak, demokrazia eta sozialismoa. Hain zuzen ere, lurralde nazionaletatik haratago zabaldu, jakinarazi edo partekatu egin ziren. Gero, aldi berean, beste globalizazio batzuk sortu ziren hegemonikoaren eraginpean edo haren zapalkuntza-dinamiken erantzun moduan. Euretako batzuei esker,

zenbait amets edo asmo gauzatu ahal izan ziren; esate baterako, kapitalaren eta bere aginte harrapatzailearen aurkako borroken nazioartekotasuna, XIX. mendean zein XX. mendean.

Txirotasuna, indarkeria moduan

Gaur egun, oso ona da hori gogoratzea, Nazioarteko Amnistia (AI) bezalako erakunde garrantzitsuek ere 2009ko maiatzean, ikuskera itxia atzean utzita, errakuntzaz aparte kontuan hartzen ziren kontzeptuak lotzen dituen mezua hedatu zuenean. Hartara, aspaldian oso argi eduki behar genuena agertzen da orain: giza eskubideen indarraldia eta duintasunaren "eskakizuna", Alren kanpaina batean adierazten duten bezala. Kontzeptu horiek munduko txirotasunaren aurkako borrokarekin dute zerikusia eta alderantziz, horrelaxe izan behar delako, betiere giza eskubideak emantzipazio-instrumental moduan onartzen badira eta ez nagusi diren egiturak kritikatzen ez dituen erretorika humanitario liberaleko baliabide huts moduan.

AIk 2009an egindako txostenaren arabera, zenbat eta handiagoa izan miseria, orduan eta giza eskubide gehiago urratzen dira. Beste epealdi batean eta beste bide batetik, ondorio horretara iritsi ziren, mende horietan ekonomia harrapatzailearen legeak aztertu zirenean. Gauza bera gogorarazten da sistemaren aurkako gaur egungo ikuspegi sozialetatik, nahiz eta batzuk nolabaiteko kontrapisu-boterea eduki edo sinbolikoak baino ez izan. Lehen esan egin zen eta, arrazoi osoz, orain baieztatzen da miseria indarkeria dela berez, indarkeria handiagoaren espiralak sortu edo eratzen dituela, hau da, funtsean, bere funtzionamenduaren ondorioz edo berez, sistemak giza eskubide aldarrikatuak urratzen dituela, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak, alegia, bai eta zibilak eta politikoak ere. Terminoa desegokia izan arren, azken eskubide horiek "lehen belaunaldikoak" omen dira, gizakiak zedarritu behar izango balira bezala. Eskubideok urratu egiten dira, planetako biztanle gehienentzat eskubideok erabiltzeko moduko baldintza materialik eta botere politikorik ez dagoenean.

AIk hauxe proposatzen du gaur egunerako, bertako zuzendariak adierazten duen bezala: giza eskubideei buruzko **munduko hitzarmen berria (New Deal)**. Horretarako, G-20ra jotzen du, **munduko liderrek behar besteko inbertsiorik egin ez dutelako eskubide horietan.** Irene Khanen esanetan, **"ez da ekonomia-kontua bakarrik... Giza eskubideen krisia ere bada. Mundua erloju-bonba sozial, politiko eta ekonomikoaren gainean dago eserita".**

Hain zuzen ere, gaur egungo globalizazioa eta gizakien zein planetaren krisi bihurtutako krisia bat datoz kapitalismoaren mugimendu horrekin, etapa jarraituen ostean erabateko merkantilizaziorako espedizioak sustatzen dituelako. Egoera horren ondorioak, gainera, genozidioan, etnozidioan eta ekozidioan ikusten ditugu. **Mugarik gabeko** kapitalak planeta globalizatu duenez eta gizakiak ukatu egiten dituztenez (nahiz eta bi aberastasun-iturriak izan), ez dira **suntsipenaren** subjektuak, **objektuak** baizik. Beraz, euren logika suizidari aurre egitea ez da batzuen aukera urruna, guztion premia baizik.

Erailketa murrizteko agindua

Globalizazio despotikoak erakarri eta baztertu egiten gaitu, eta birsorkuntza edo eraldaketa agintzen du aurrera jarraitu ahal izateko. Beraz, kapitalismo basatiaren adierazpenak baretzen ditu, eta oposizioak suspertzen ditu. Horrez gain, argi eta garbi azaltzen du kontraesanen historiarik ez dagoela, modu formalean konpondu ezin den gatazkarik ez dagoela eta merkatuaren arrazionaltasun zein metaketa kapitalistatik kanpo ongizatea bideragarria ez dela. Hau da, besteen izaerarako lekurik ez dagoela eta aldaketarako lekurik ez dagoela: ez alteritaterik ez alternatibarik. Bi hitz horiek senidetuta daude.

Itxurazko ondare bateratu moduan aurkezteko erabilitako ageriko abantaila erlatiboak, duela urte gutxi pentsaezinak ziren aurrerakuntza teknologikoak, komunikazio bizi edo azkarrak eta zenbait sarbide edo mugikortasunerako aukera kontuan hartuta, oraindik ere sinetsarazi egiten digute globalizazio kapitalista horretan hobeto gaudela eta globalizazioa bera historiaren amaiera loriatsua dela eta eragin edo larriagotu duen krisiaren irtenbidea dela. Bere kudeatzaile eta eusleek gezurra diote.

Gaur egungo ereduaren ahalguztia ez da hainbesterako. Bere legeen barruan, ez dago guztiontzako irtenbiderik, edo, besterik, gabe, euren interesen eta inguruan dutenaren arabera hitz egiten dute. Ez dituzte besteak ikusten. Ez dituzte sentitzen. Bestela, ikusi egiten dituzte, baina besteek ez diete euren (gure) bizimoduari buruzko azalpenik eskatzen. Besteek ez dituzte euren (gure) ohikeriak eteten. Ahalik eta gehien irabaztea eta metatzea da helburu nagusia.

Besteak menderatuta daude. Ez daude horizontean (ez dago horizontaltasunik), azpitik daudelako. Ez jatea, inbadituak edo jazarriak izatea euren arazoa da. Euren sufrimendua euren patua da. Horrela esanda, badirudi errukirako deia dela. Ez. Nolabaiteko neurrian, sentsibilizazio eta hezkuntza arazoa denez, boterera, aldaketarako eraketa alternatiboaren zentraltasunera garamatzan konplexutasuna da funtsean. Laguntasunerako elkartasunera garamatza, beste horiek euren norabide politikoak erabaki ditzaten eta beste balio eta antolaera batzuetatik oraingo zein etorkizuneko premia sozial eta kolektibo handiei erantzuteko.

Beste globalizazio bat, behetik

Hori dela-eta, beste era bateko globalizazioa sortu behar da, interpelazio eta interes-gatazka moduan, ondasun bateratuen txertaketa eta babesagatiko subjektu, postulatu eta ekintza anitzek nabarmentzen duten bezala. Justizia-prozesuok egin egin daitezke, oinarrizko premiak edo eskubideak sakrifikatzeko edo merkantilizatzeko agindua ematen duen politika kontrajartzerik badago. Giza eskubideak erabiltzeko, gainera, hausturak eta eraketak gertatu behar dira. Hori dela-eta, beste mundu bat esatea alternatibarako alteritatea aipatzea da (beste bat izatea), hau da, alternatibak onestea eta izatea edo alteritateak izatea, onestea eta egitea, hots, "bestea" onartzea eta egituratzea: etorkinak, emakumeak, desjabetuak, errefuxiatuak, menderatuak, baina ahaltsuak, sortzaileak, erresistenteak, matxinatuak, izateko gaitasundunak, ordena bidegabekeriagatiko haserreak eta eraldatzeko boteredunak. Beraz, natura, mundua eta ondasun bateratuak onestea, bestea izatea, bestea izango balitz bezala, gure bizitza horren eraginpean dago-eta.

Hau da, besteak (gu geu gara -edo izan gaitezke-), txirotuak garelako eta gutxi batzuen esku dagoen munduaren jabetzapen globalak inguratu egiten gaituelako. Gainera, gehien kontsumitu eta hondatzen dutenak dira. Intsumisoak (gu geu / besteak), eredu neoliberal globalaren ordena terroristaren aurrean. François Houtarten esanetan, okupazio-enpresak hedatu, konkista-gerrak garatu eta isiltasunak erosten dituen des(ordena). Horixe bera egiten dute G-20k, transnazional handiek edo komunikabideetako enpresa ahaltsuek, burtsa-merkatuaren mugimendua albistea dela esaten digutelako eta albistea ez dela Kolonbiako sindikalista edo nekazarien sarraskia edo Gazako herriak jasandako zigor kolektiboa.

Hori dela-eta, ustezko irtenbideek aldarrikapenak egin behar dituzte, eta gatazkak argitu behar dituzte. Gainera, globoaren merkantilizaziotzat hartutako merkatuaren globalizazioak eragindako heriotzatik eta nahasmendutik ihes egiteko edo bete-betean oztopatzeko sortzen da. Izan ere, baliabideak esplotatu edo arpilatu egiten ditu, eta, horrez gain, ahalmenak zein nortasunak arpilatu eta administratu egiten ditu, alde ez dauden subjektibotasunak ezeztatzeko. Horrela, ez da emantzipaziorako ikuspegia lekuratu eta eratuko. Munduaren tutoretzapeko zuzendaritza material eta izpirituala baino ez dago, statu quoari eusteko, zilegizkotzat jotako interes mugiezinetarako, nahiz eta euren ondorioz multzoan eta lasai erail eta merkatua sakralizatu.

Eskubideen aldeko borroken ziklo berria

Patuari erronka botata, subjektu eta erakunde anitzen eta gobernu gutxi batzuen erresistentzia ugarietan urratzen dira bideak, Amerika Latinoan gertatzen den bezala. Hain zuzen ere, iraganeko batailen eremu berean kapitalismoari aurre egiten diote, eta, horrez gain, mugimendu sozialen bidez aurrera egiten dute jabari tradizionalen eta, euren artean, patriarkatuaren aurka. Halaxe adierazten dute genero-ikuspegia eta herri-mailen ikuspegia kontuan hartzen dituzten emakume-borrokak askok, izateko eta boterea eratzeko (jabekuntza-prozesuak) baldintzei dagozkien eskualde edo dimentsioetan sartzen direnean.

Globalizazio kapitalistaren logika horiei zenbait eratara eta bitartekoren bidez aurre egiten zaie. Bertan, mugara iritsi gara, muga hori atzeraezintasunez zeharkatu ez badugu, funtsezko osagaien eta fluxuen ingurumen-suntsipenari dagokionez: hildako milaka eta milaka gizaki (koherentzia eta objektibotasun handiagoaz hauxe esan beharko genuke: erabateko zigorgabetasuna duten hiltzaileak eta hildakoak); eta guztion, besteen bizitza duinerako premiei aurre egiterik ez duen sistemaren bidez zeharkatutako mugak.

Giza eskubideen aldeko apustu alternatiboan, hau da, behean daudenentzat eta daudenen bitartez boterea sortzen duen alternatibaren aldeko apustuan (herrien eta taldeen giza eskubideak), kapitalismoa eraldatzeko eta gainditzeko prozesu sozialak gertatu behar dira, hona iritsita ezin dugulako itxaron harik eta G-20ko liderrak sentsibilizatu arte. Seguruenik, premiaren premiaz garapen-

bidean dagoen New Deal euren itun berria da edo izango da, bandaren edo batera lan egiten dutenen munduko botere-zentroen hitzarmen modernoa. Horrela, arauketa, eraldaketa edo konponketarako instituzioak (bir)sortuko dira kriminalagoa edo ez hain kriminala den kapitalismoarentzat.

Ulergarria da G-20ra edo kapitalismoko gobernu eta enpresetara jotzea, izan ez den eraginaren, diplomaziaren eta diskurtsoaren giltzarri izango balira bezala. Hori dela-eta, zilegizkoa da beheko subjektu sozial eta prozesuekiko solasa sustatzea, eraitsi egin behar den eta ahal den ordena hausteko moduko dinamikak eta pentsaerak abian jarri ahal izateko. Ordena horrek, hain zuzen ere, bizitzak aukeratzen ditu seriean, katean hiltzeko asmoz.

Agerikoa denez, horrek ez du esan nahi gizakien ustezko duintasunaren aurkako urraketa guztiak bat datozela harreman-ordena kapitalistaren ondorioz sortutako errealitateekin eta beste esperientzia historiko batzuk kanpoan uzten direla. Zentzugabekeria barik, uko maltzurra izango litzateke. Modu kuantitatiboan eta kualitatiboan, gaur egun ez dago kapitalismoa ez bezalako sistemarik, gizakien eta planetaren sakrifiziorako eta kalterako gaitasun handiagoa duenik. Garai berean, ez dago kapitalista ez den erakunderik, nagusi den eraketa kapitalistak bezalako ondorioen antzeko kalteak eragiten dituenik. Ez dago modu berean inpugnatu behar eta ahal dugun beste sistemarik. Alternatiba-saioak baino ez daude, eta egindakoagatik ez dira erkagarriak, ezta homologagarriak ere, egin behar dutenagatik. Indarkeria kapitalistaren erasoei aurre egitea lortuta, euren utopiarekin bat egin behar dugu eta euren arabera egituratu behar gara biziraun ahal izateko. XXI. mendeko sozialismoa dela edo ez dela, ez da XXI. mendeko kapitalismoa izango askatzen gaituena. Ez litzateke inolako alternatiba izango.

Izateko boterea berreskuratzea / besteekin gatazkan

Beraz, giza eskubideen aldeko apustu alternatiboaren abiapuntu inplizitua edo esplizitua alteritatea izan behar da, hau da, premiaren premiaz zilegitasunez mugatzen gaituzten eta egon badauden besteak bestetzat hartu behar dira. Naturatik hasiko gara, planetaren oreka eta bizitasunetik, arpilatzen ez jarraitzeko.

Alteritatean, bestea nagusi dela onartzean, biktima-sortzaileak eta, are gutxiago boteretsuenak (G-20, esaterako) ezin dira tratatu biktimak edo euren ordezkariak izango balira bezala, edo ezin dira zigortu gabe geratu sistema kapitalistak abian jarritako indarkeria-adierazpenek sorrarazitako gatazkak eta erantzukizunak, egiturazko ebazpenak hartzen dituztelako eta erabakiak hartzeko prozesuetan maila edo tarte zehatzak dituztelako honako hauetako goi-mailetan: enpresak, bankuak, industriak, gune militarrak, gobernuak, nazioarteko erakundeak, agentzia ideologikoak...

Mendetasun-errealitatea eta ustezko gatazka ezagutzen ez dituzten giza eskubideak simulazioa ez ezik, fartsa maltzurra ere izango lirateke, ulermenean eta ekintzan besteak mugan emandako oihuaren alteritatea kontuan hartu ezean. Ignacio Ellacuríak zioenez, txirotua benetako lekua eta zapalkuntza gainditzeko lekua da. Onetsi egin behar da. Bestea ni neu naiz, bestea egon badago, ez dut saihestu behar eta ezin dut ekidin.

Era berean, giza eskubideen diskurtsoa ere gezur biribila da, alternatibarik ez dagoela uste badugu edo historia bera honako hauetan oinarritutako sistemaren eraldaketaren eraginpean dagoela uste badugu: ahalik eta irabazi gehien lortzea, metatzea, hautaketa-arrazionaltasuna sendotzea eta bizitzak kalkulatzea. Halaxe gogoratzen digute Franz Hinkelammerten edo Santiago Alba Ricoren lanek, Friedrich Hayeken jarraitzaile zinikoak edo moderatuak salatzen dituztenean.

Horren ondorioz, bestea onesten ez duen gaur egungo globalizazioak merkantilizatu eta hil egiten badu edo planetan besteak diren gehiengodunen eskubide guztiak urratzen badira, beste globalizazio bat eratu behar da, nahiz eta ageriko gatazka sortu, proposamen teoriko eta praktikoa diren giza eskubideek goragoko indarraldia lortu dezaten. Alter-globalizazioa alternatibaren formatu globala izango litzateke. Egin egin daiteke, eta, gainera, premiazkoa bezain erabakigarria da. Orain ez da diskurtsoa. Bere mamia edo edukia, gainera, aldaketa da, alternatibak alteritatea baieztatzen duelako.

Hau da, alternatiba da, interes-gatazka dagoela egiaztatzen duelako. Izan ere, gatazka hori egon behar da, gutxi batzuk oparotasunean bizi eta milioika desjabetzagatik hiltzen diren bitartean. alde egin beharra dago, kontzientziak eragiten dituen haserrea sortzeko. Horrela, gizartean hedatutako kontzientzia on bezain lasaia urratuko da, konplizitatearen atarian dago-eta. Alternatibak besteak onesten ditu, kapitalismoak alteritatea ezagutzen ez duenean edo ukatu egiten duenean. Alternatiba da, gatazka berreskuratu eta kapitalismoko

ihesaldiaren, erantzukizun-faltaren eta alienazioaren aurka egiten duelako. Izan ere, erabaki politiko eta ekonomiko zehatzen erdian eta ez kanpoan lekuratzen dituelako gizakiak eta euren gorpuztasun zehatza: euren eskubideak, premiak, bizi-eskaerak eta duintasuna. Aurrerantzean, gizakiak, herriak eta jendetza ezin dira objektuak izan, euren etorkizuna erabakitzeko moduko boterea, botere-baldintzak berreskuratzen dituzten subjektuak izan behar direlako.

Beraz, gure ustez, ez da etorkizuneko indar-loturetan hertsapenik eta asimetriarik edukiko ez duen alegatua edo garapenak ez dira beti baketsuak izan behar. Bertan, oso kontuan hartu behar da pribilegioei eusten dietenen obsesioa. Era guztietako ziklo berriak ireki dira borroka sozial eta politikoan. Eraldaketaren aldeko eragileen kontzientzia eta eraketaren arabera sortu ahal izango dira, eta, lehentxeago edo geroxeago, benetako aldaketen aldeko zilegizko eta berezko baliabideak edo bermeak jarri beharko dituzte abian. Erresistentziaren eta matxinaden korpusa dago, eta giza eskubideak horren osagai eta herentzia dira. Hor, berriro ere, herrien eta euren borroken aldeko giza eskubideen kategoriek zer egina dute, bertsio instrumental hutsa izan ez daitezen. Ahulenak zapaltzen dituen indarkeria guztiak erakustea eta zilegitasun barik uztea da bere muinaren helburua.

Hori horrela bada, funtsezko koherentziagatik, ez da zilegizko apustu etiko, politiko eta historikoa eta bere eragin utopikoa ezkutatu behar: alternatiba ez dago edo ezin da inolaz ere garatu ordena kapitalistan: ez arautu gabeko basatienaren kasuan, ez finenaren edo berrituenaren kasuan.

Alternatiba kapitalismoaren aurkakoa da edo ez

Giza eskubideen aldeko alternatiba giza duintasunaren aldeko borroka-prozesutzat hartzen da, eta kapitalismoaren aurkako eraketaranzko erresistentziaren iragaitzan dago, aurrerantzean alteritate guztiak onesten dituen asalduran. Era berean, zapaltzaileen gizakitzat ere hartzen dira alteritateak, eta euren egitura kriminalei aurre egin behar zaie, botere ankerra kentzeko edo, beste garai batean esaten zen bezala, zapaltzaileak pertsona moduan, premiadun izaki moduan aldarrikatuak izateko.

Gaur egun artxibatuta omen dauden dialektikak berrezartzen dituzten kezka edo amets goiztiarrak edo zaharkituak direla ematen du. Nolanahi ere, eurak barik, borroka horiek barik, giza eskubideen aldeko borrokak ez luke zentzurik edukiko, ez litzateke loteslea izango, faltsututa egongo litzateke, hutsala izango litzateke, bide berean Munduko Bankuak edo eskubideok urratzen dituzten transnazionalek giza eskubideen alde ordaintzen duten jarduera eta ia-ia baliabiderik gabe Brasileko MSTk edo Chiapasko erkidegoek garatzen dutena parekatzean, esate baterako. Gauza bera badira edo, gure kanonen arabera, gauza bera izateko eskatzen badugu, GKE-etan edo ikerketa-zentroetan ditugun kanonek ez dute liberatzen, despolitizazioa sustatzen dutelako. Artifizio handiaren beste pieza batzuk dira, ez delako gauza bera eta ez delako gauza bera izan behar giza eskubideetara sistemaren ondorioz sortutako boteretik jotzea eta behetik egitea, bazterketa bizita, bazterketa sortzen duen makina horren kontra.

Debekatutako galderak ireki behar dira berriro, azpiko gatazka agerian geratu dadin. Galdera horiek, gainera, besteen premiatik pentsatutako giza eskubideen perspektiban, alteritatean egon behar dira, hau da, alternatiben ikuspegian, behetik eta herrietatik datorren mamua direlako eta benetako prozesu moduan gorpuzten direlako, gizakiek bizi duten krisiari benetako erantzunak emateko. Izan ere, kapitalismoak errealitatetik ihes egiten du, eta sortu duen basakeriaren normalizazioa eta arauketa baino ez dituelako eskaintzen.

Hasierara itzulita, ez gara errugabeak, inoiz izan baginen. Nolabaiteko mailan, erantzukizuna dugu kate hiltzaileetan eta hautsi egin behar ditugu, geure sudurretik eta G-20tik haratago ikusteko. Besteak ikusteko. Besteak izateko. Behekoak. Lurra suntsitzen ari badira, funtsezko biziraupenagatik ereduren bat egituratu beharko dugu besteekin, euren alboan euren-gure eskubideak defendatzeko eta, defentsa horretan, biziraupen kolektiboa eratzeko, hautaketagatiko multzo-aukera etiko bakarra delako eta premiazkoa delako. Horra hor alter-globalizazioa, beste globalizazioa, kapitalismoaren aurkako iragaitzarena

Carlos A. Ruiz - Mundubat